

Neurriko kultura azpiegituren premia Kukutzak Guggenheim garaitu du

IRITZIAK

Ixiar Rozas • Lasierako Azala espazioa
Leire Lopez Ziluaga • Gernikako Astra
Andoni Iturrioz • Senpereko Larraldea



Kukutzak Guggenheim garaitu du

Eraikin txirtxilatua irudirik ez da faltako urtea erreparatzeko argazki-galerietan. Kukutza III, 1998tik 2011ra Bilboko Errekalde auzoaren birika kulturala izandako gaztetxea, indarrez hustu zuen Ertzaintzak aurtengo irailean; presaz aritu ziren hondeamakinak edifizioa lurrera eramateko, auzotarren oihuak eta polizia autonomikoaren pilotakadak soinu banda. Errekaldeko gaztetxearekin gertatutakoa osotasun baten parte gisa ulertuz baino ezin daitezke atera ondorio sakonagoak ordea; hori eginez soilik uler daiteke nola dauden gauzak krisi garaiotan, erakunde publikoek, azpiegitura kulturalak eta herritarrek osatutako hirukian.

■ Egilea: Gorka Bereziartua

Ñabardura gehiegirik gabe esateko, egoera idealen erakundeek herritarren beharren arabera moldatutako azpiegiturak bultzatu beharko lituzkete eta horren arabera baloratu beharko lirakete politika kulturalak. Baldintzakok erabiliz idatzi dugu aurreko esaldia, azken hamarkadetako politika nagusiek (aurrekontu handienak eraman dituztenek) ez dutelako printzipio hori jarri erdigunean; bai, noski, sortu dira beharretan oinarritutako ekipamendu publikoak, baina bestelako haizeek puztu dituzte bela nagusiak: kulturatik harago dauden zereginak berenganatu dituzte hainbat ekipamendu kulturalak Euskal Herrian, industria astunaren gainbeheraren ondoren hirugarren sektoreko jarduerak protagonismoa hartzearekin batera, eta hazkunde ekonomikoak hauspoturik.

Bilboko Guggenheim museoa da joera horren totem nagusia Euskal Herrian, Bizkaiko hiriburua- ren berpizkundearen sinbolo, motor ekonomikoaren engranaje garrantzitsu eta turismo erakarle, koman zegoen hiri post-industriala esnatzearen erantzuletzat daukate eraikina; mirakulua, bat baino gehiagorentzat. Geroztik nonahi azaldu dira bestelako helburuak izanik ere, Guggenheimen ildoari jarraitu dioten azpiegitura kulturalak: Donostiako Kursaal (1999), Gasteizko Artium (2002) edo Iruñeko Baluarte (2003) hiri eredu baten zerbitzura sortu ziren, Saskia Sassen soziologoak “hiri global” izenarekin bataiatu zuen patroiaren barruan (hirigintza erduei eskainitako 128. LARRUNen daukazu gai horri buruzko informazio zehatzagoa, baita Bilbo “hiri global” baino “hiri performance” kategorian geratu izanaren arrazoiak ere).

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.304. zenbakiarekin banatua, 2011ko abenduaren 25ean)


1990eko hamarkadatik lasterketa moduko bat abiatu zuten hiriek mundu osoko sarean egokitu zitzairen posizioa indartzeko edo hobetzeko asmoz; diferentea izatea, zerbait berria eskaintzeko edukitzea da lasterketa horretan posizioak irabazteko modurik onena. Hiri bakoitzak “beste zerbait” bilatzen du, marka globalak ekartzen saiatzen da (Frank Gehryk diseinatutako museo bat, kasu), horrek turismo kulturala erakarriko duelakoan. Joxean Muñozek, oraindik Donostiako Tabakalerako zuzendaria zenean, honela laburbildu zuen afera (120. LARRUN, 2008-05-04): “Lehen nazio-estatuaren arteko lehia zena orain askoz konplikatuagoa da eta hirien artean ere badago. Hiriek behar dute halako enblema bat, lehia horretan jokatzeko, eta horretan museoek eragin garrantzitsua izan dute”.

Ikuspuntu artistikotik begiratuta, horrek guztiak kulturarekin zeharkako harremana besterik ez du, eraikinak eta azpiegiturak bestelako interesen zerbitzura jarritako erremintak direlako eta hori, bere horretan, posizio zalantzarria da. Asko eztabaidatu daiteke “Guggenheim efektua”-k Bilboko eta Euskal Herriko kulturari ustez ekarri dionaz eta benetan izan duen inpaktuaz. Baina bertako kritika bati beti txokokeria leporatu ahalko zaionez, jo dezagun kontu hauetan iritzia lege bihurtzen dutenengana. Duela lau urte *The New York Times* egunkarian idatzitako artikulu batean (*Bilbao, 10 years later*, 2007-09-23) Denny Leek nabarmendu zuen Guggenheimek Bilbori aurpegia garbitu dion arren, hiriak ez duela jakin museoaren erakarpen indarra probesten eta bilbotarren eguneroko kultura erabat deskonektatuta dagoela arte garaikideko museotik. “Lehen mailako arkitekturaren kontzentrazioa harrigarria, baita Gehryren titaniozko maisulana gabe ere. Baina arkitekturak bakarrik ez du hiria egiten. Bilbo erabat jantzita dago, baina ez du erabaki nora joan nahi duen”.

Eskala txikiagoan, antzeko zerbait gertatu da biztanle gutxiagoko herri askotan ere: azpiegitura kultural txiki eta ertainak asko ugaritu dira az-

ken hamarkadetan. “Interpretazio zentro” bezalako izenak ezagun egin zaizkigu denbora gutxian, han eta hemen ugalduta dira ohiko kultur etxeak tamainaz eta asmoz gainditu dituzten ekipamendu kultural berriak. Herriko ikuspegi nagusitu da eskualde ikuspegi bazterrean utzita eta horrek kontraesanak sortu izan ditu –elkarri traba egiten dioten programazioak, atomizazioa...-. Gehiegizkoa litzateke beharbada herri mailako “Guggenheim efektu”-ez hitz egitea, baina berriz ere kulturagune handiekin badago loturarik fenomeno lokal hauetan: gastu publiko handiak eskatu dituzte, azpiegiturretan inbertitu da dinamiketan baino gehiago eta maiz programazioak koordinaziorik eta planifikaziorik gabe jarri dira abian. Eta ez da baztertzeko modukoa herrietako azpiegitura horiek gastu publiko orokorrean izan duten eragina. 2008ko datu batek dio Jauralaritzak, foru aldundiek eta udalek kulturaren gastatutako 510 milioi euroetatik erdia baino gehiago udalek jarri zituztela.

Baina halako batean krisi ekonomikoa etorri da. Administrazioek diru gutxiago biltzen dute zergen bidez, ez dago zorpetzeko lehen adinako ahalmenik eta orain zuri, orain niri, aurrekontuak murriztuzkoak izaten hasi dira. Artaziek klaska egin dute kulturari eskainitako hainbat partidatan. Handi batzuk aipatzeko: 2016ko Europako Kultur Hiriburu izango den Donostiak diruak nondik eta nola aurreztu ditzakeen jakin nahi du, 89 milioi eurokoa izan liteke murrizketa egunotan prentsan irakurri dugunez. Azaroan Arabako Kultura diputatuak iragarri du Artiumek sos gutxiago izango dituela eta ezbaian dago KREA zentroaren etorkizuna. Nafarroako aurrekontuetan 2011n izan diren murrizketen artean handiena izan da kulturakoa (%12,8 gutxiago); ezinegon nabarmena da, azaroaren 26an Lizarran “kulturaren heriotza”-ri negar egiteko Kilkarrak antzerki tailerrak antolatutako prozesioak ez du bestelako esplikaziorik eskatzen. Programazioak etetearen kontrakoa zen protesta, baina baita udalaren San Benito azpiegitura kulturala esku pribatuetan utzi izanak eragindako espazioaren aprobetxamendu



Kontrasteak ezin du handiagoa izan: Frank Gehryk diseinatutako Guggenheim museoa lerroon gainean eta Kukutzaren hezurdura eskuineko argazkian. Bilboko kultura ofizialaren eraikina da bata, baina Errekaldeko gaztetxearen ereduak seinalatzen du iparra, ziklo ekonomiko berriak eskatuko dituen kultur ekipamenduetarako.

eza salatzeko ere (beste hainbat herritan ere errepikatzen da gauza bera).

Bilboko Guggenheim da, itxuraz behintzat, oraindik krisia nabaritu ez duena (bisitari kopuruak gora egin du aurten), baina Urdaibaiko museo proiektuaz aspaldian ez da ezer entzuten eta ez dirudi baliabiderik dagoenik proiektua martxan jartzeko (nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiak proiektu estrategikotzat duen eta PP ere alde agertu den); erabilera kulturalak ere badituen Bil-

bao Exhibition Centre berriz, estu eta larri dabil urte bukaerara iritsi ezinda.

Bestelako ziklo ekonomiko batean pentsatu eta eraiki ziren azpiegitura hauetatik zenbatek eutsiko dioten garai berriei eta nola egingo duten halakorik, hori da ezbaian dagoena. Orain arteko baldintzetan horietarik asko ez dira ekonomikoki jasangarriak eta zentroen zeregin, programazio eta planteamenduen gaineko errebisio sakona eskatuko du beheraldi ekonomikoak; baita kultur-



gune publikotzat hartzen ditugun azpiegiturak definiziotik bertatik birplanteatzea ere.

KULTURGUNE “IKUSEZINAK”

Urrun daude eraikin horiek denak izaeran Errekaldeko Kukutzatik. Hondeamakinen, pilotakaden, manifestarien soinuarekin hasi dugu artikulua eta hara itzuliko gara, aurtengo iraileko azken egunetara, gaztetxea hustu eta bota zuten egunetara. Zergatik hain azkar eta halako indarkeriaz? Testuinguru lokaletik harago, kulturgune eredu bat onartzeko ezintasunetik besterik ezin da ulertu Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako

Barne Sailak irailean izan zuten portaera. Gure artean “gaztetxe” hitza erabiltzen da esparru horiek definitzeko baina antzeko eran antolatutako espazioak mundu osoan aurki daitezke. Botere politiko eta ekonomikoen eraginetik kanpo sortutako guneak dira, autogestioan oinarrituak eta hutsik dauden lekuak bete eta biziberritzeko helburua dutenak. Politika kultural instituzionalek herritarrei ekipamenduak eman beharko lizkietete, baina hori egin ala ez, gaztetxeek modu autonomoan funtzionatzen dute. Ekipamendu bat lortzeko bitartekaritza politiko-instituzionalaren galbahetik pasatzeari uko egitean datza gaztetxeen ereduak.



HTTP://ANDOAINGOJUBILATUAK.BLOGSPOT.COM

Udal ekipamenduetara ere iritsi da eraikin garestiak egiteko joera, Andoaingo Bastero kulturunea izan liteke horren adibide. Baina aurrekontu gehienetan murrizketak hasi diren garaiotan, ez dirudi eredu egokiena denik.

Ez da harritzekoa Errekalde bezalako auzo batean sortu izana agian Euskal Herriko gaztetxerik garrantzitsuena zena, auzotarrek horrelako leku baten premia baitzuten. Eta dute. Horregatik okupatu zuten Larraskitu kaleko beste eraikin bat azaroan, berehala Ertzaintzak hustu zuen arren. Eta zio berberengatik okupatzen dira eraikin berriak edonon. Kukutza husten ari ziren egunetan Donostian Uxotegi okupatu zuten; Gipuzkoako hiriburuan bertan, erabilera kulturalak izan beharko litzukeen Bellas Artes eraikinean saioa egin zuten hainbat lagunek, baina udaltzainek eta Ertzaintzak hustu zuten berehala (luxuzko hotela egiteko asmotan da edifizioaren jabe den enpresa); lerrook idazten ari diren egunetan Ertzaintzak hainbat gazte kanporatu ditu Gasteizko Zaramagan okupatutako Arte eta Ofizioen Eskola zaharretik.

Okupazio praktika horrek ez du zerikusirik krisia nabaritzen hasiak diren kulturgune publiko handi eta ertainekin. Hakim Bey filosofoaren TAZ kontzeptuaren argitan (*Temporary Autonomous Zone*,

euskaraz “Aldi Baterako Gune Autonomo” itzuliko genuke) ulertzen da egokiago espazio kultural alternatiboan izaera. Beyk anarkismotik eta situazionismotik edanda, iraultza iraunkorraren orde, aldi bat irauten duen matxinada proposatu zuen. Bere hitzetan esateko: “TAZa Estatuaren kontra zuzenean jotzen ez duen matxinada mota da, gerrilla operazio bat, eremu bat askatzeko –lur eremua, denbora eremua, irudimen eremua–; behin hori lortuta, bere burua disolbatzen du beste leku edo garai batean berreraikitze, Estatuak zapaldu baino lehen”.

Beyren arabera, aldi baterako autonomia lortzen duten espazio horien alderdi indartsuena ikusezin izatea da. “TAZ batek desagertu egin behar du izendatua –errepresentatua, mediatizatua– denean, desagertu egiten da, atzean hutsunea utziz”. Azken esaldiak ongi islatzen du gaztetxeekin eta tankerako zentroekin maiz gertatzen dena: isilean lan egiten dute, *underground*ak dira; urte asko pasa ditzakete martxan mundu guztiaren bistan eta

hala ere ikusezin. Baina hedabide nagusietan agertzen hasten direnean, arriskua eta kanporatze mehatxua berehala jausten zaizkie gainera. Jende askok ez zuen izango Kukutzaren berririk aurtengo irailera arte; eta ez du jakingo bere herrian bertan egunero-egunero hainbat lagun biltzen direla antzeko lekuetan.

Erakunde publikoek problemak izaten dituzte horrelako kulturaguneekin, ez direlako eskema arautuetan kabitzen. Gaztetxeak gaztete dira, instituzio politiko paraleloak ere badirelako, eta erakunde lokal, probintzial edo autonomikoen ordezkariak mekanismoen aurrean bestelako antolakuntza-ereduak –demokrazia zuzena, asanblearismoa...– lehenesten dituztelako. Baina maiz ahaztu egiten da bokazio publikoa duten guneak ere badirela, konbentzioen barruan sartzen ez diren arren. Ateak zabalik uzten dituzte, nor bere jarduerak gauzatu ahal izateko.

Kulturagune publiko erakundetuekin dituzten diferentzia nabarmenenak dira batetik, espazioak berak, leku fisikoak, ez daukala hainbesteko garrantzirik eskaintzen duen jarduteko aukeraren aldean (nomadismoa beti dago eskura, leku batetik kanporatuak izatean beste espazio huts bat betetzen da, arkitektura gastu handirik gabe, aurrekontuak, ezinbestean, ondo doitu); eta bestetik, ez dutela eskaintza-eskari bidez funtzionatzen, parte hartzeko prest dauden antolakuntza gaitasunaren arabera baizik. Hain eredu malgu izanik, ekonomikoki jasagarria da gaztetea, beste hainbat azpiegitura publiko ez bezalako.

KUKUTZAREN GARAIPENA

Kontrajarritako eredu gisa aurkeztu ditugu aurreko lerroetan bi kulturagune motak, baina, hala ote dira? Ez al dute erakundeek gazteteetatik ezer ikastekorik? Azken hamarkadetan sortutako azpiegitura publikoen eskutik, diskurtso mota bat ere zabaldu da, kulturagune autogestionatuen ezaugarriak instituzioek bultzatutako eraikinetara eramateko asmoarekin. “Gizarte sortzaile”-aren ideia hainbat hi-



Erakunde publikoek problemak izaten dituzte gazteteekin eta antzeko kulturaguneekin, ez direlako eskema arautuetan kabitzen. Instituzio politiko paraleloak ere badira gazteteak, eta erakunde lokal, probintzial edo autonomikoen ordezkariak mekanismoen aurrean bestelako antolakuntza-ereduak –demokrazia zuzena, asanblearismoa...– lehenesten dituztelako. Baina maiz ahaztu egiten da bokazio publikoa duten guneak ere badirela”

tzaldi eta artikulutan agertu da. Ramon Zallo EHuko irakasleak *Gara* egunkarian argitaratutako *Kafka en Kukutzan* (Kafka Kukutzan) artikulua pasarte batek ondo laburbiltzen du ikuspegi hori: “Udalak ez du jakin ulertzen Kukutzan bultzatu beharreko sorkuntza mintegia dela, Richard Floridak ‘klase sortzaile’ deitu izan dion horren parte, hiru ‘T’-en zutabe nagusi: teknologia, talentua eta tolerantzia. Teknologiak berrikuntzari egiten dio erreferentzia; talentuak sorkuntzan lan egiten duten pertsonen, ingeniariak, artistak edo zientzialariak; eta tolerantzia neurtzen da auzo edo hirietan bohemioek, kulturek, gay-ek, kontrakulturak eta abarrek duten presentzia indizearen arabera. Horrek guztiak talentua erakartzen duen eta sorkuntza bultzatzen duen ekosistema osatuko luke”.

Ikuspegi hori zalantzazkoa da bizi dugun tesuinguru ekonomikoan, kulturagintza krisia eragin duen ereduaren barruan txertatzen saiatzen da, giza aurpegidun garapen ekonomiko kapitalistaren mesedetan. Zallok aipatutako Richard Floridari behin baino gehiagotan kritikatu izan diote elitista izatea; eta garapen sozialaren ideia ikasketa eta bizi mailarekin lotzen dela ere esan izan diote, ez



WWW.EHUC.ES

Gasteizko Artium, euskal hiriburuetakoa beste hainbat azpiegitura bezala, hiri eredu baten mesedetan sortu zen, ez interes kultural hutsengatik.

zonalde batean bizi diren gay edo bohemio kopuruarekin. Baina EHUko irakasleak egin zuen sintesi saiakera interesgarria da eta antzeko ariketetatik aurrera egiten lagun dezaketen ondorioak atera litezke.

Kulturguneen ibilbideari erreparatuz gero, bada hein batean bi ereduaren uztartze gisa uler daitezkeen eta arrakastaz aurrera egin duten kasuak. 1987an zabaldu zen Arteleku da horietako bat: Donostiako Loiola auzoko eraikin industrial bati bestelako erabilera eman zioten; berri zuten, baina gaur egun ere, urrun dago Artelekuren itxura beste hainbat lekutan sortu diren kulturgune arranditsuetatik. Ez du axola, mota ugarietako sortzaileen habia da eta programazio zainduari esker erreferente bihurtu da, bere espezializazio mailarengatik titular handietan gehiegi azaldu ez bada ere. Ikusteko dago Tabakalerako proiektuaren barruan sartu izanak zertan eta nola eragingo dion, baina datozen garaietako kontuan hartzeko moduko modeloa izan daiteke, dagoeneko existitzen diren eraikinen aprobeixamendua beharrezkoa izango baita sos publiko urrien garaiotan. Krisi ekonomikoari irtenbiderik ez duen petrolioaren krisia gehituz gero, gainera, bestelako helburuekin

eraikitako egituren berrerabilpenaz gain, zeregin antzetarako prestatutako eraikinetan pentsatzea ere ez legoke soberan.

Espazioen kudeaketa da aztertu beharreko beste puntua. Baliabide ekonomikoak urritzen diren neurrian, programazioak bertan behera geratzeko arriskua baitago eta hainbeste kostata eraiki diren etxeak edukiz hustekoa. Diru publikoz egin dena herritarrek erabili ahal izateko bideak erraztu beharko dituzte instituzioek, bai “eguneroko” erabileran pentsatutako ekipamenduetan, (kultur etxeak, adibidez), baita *tuning* handia eduki duten zentroetan ere. Eta horretan, badute zer ikasia gaztetxeen eredutik. Espazioak herritarren esku utzi ala kudeaketa partekatu, parte-hartze handiagoaren bidez etor liteke kulturgune askoren biziberritzea.

Makinek presaka ezabatu nahi izan zuten Kutzuzaren arrastoa Errekaldetik, baina eraikina desagertuta ere, gaztetxearen kulturgintza eredia garaile atera da. Urteak pasako dira zenbait agintari konturatu arte ikuskizun kulturalaren garaia, Guggenheim efektuarena, bukatzen hasia dela, sortu zuen ziklo ekonomikoarekin batera. Kontsigna ezin dela gehiago izan Oier Etxeberriak Veneziako Biurtekoan ironia handiz egindako afixetan agertzen zen hura, “*crear dos, tres, muchos Guggenheim*” (“Bi, hiru, Guggenheim asko sortu”), aparra soberan daukatela kulturen egindako inbertsio askok eta sos gutxirekin lan aparta egiten ari diren beste zenbait espazio berriz, erabat ahaztuta daukatela instituzioek. Bitartean inbertsio okerrak egingo dira, seguru, eta urteekin zarrastelkeriari egindako monumentu gisa besterik ezingo dira ulertu gaur egun ezinbestekotzat jotzen diren azpiegituretatik asko. Baina kontu horiei erreparatu ala ez, kultura bizi da eta biziko da arnas hartzeko bilatuko dituen lekuetan. Horien zenbait adibide daukazue hurrengo orrialdeetan, kokaleku, tamaina, antolamendu, finantziario eta helburu oso diferentetakoak denak, baina zarata handirik atera gabe, bidea ondo pentsatuta, beren ekarpena egiten asmatu dutenak. ■





Ixiar Rozas

Azalerak. Esperientzia egiteari buruz

Arte Ederretan doktorea (EHU) eta AZALA lan-taldeko kidea.

(1)

Desio bat. Azala espazioa desio batetik abiatzen da. Idoia Zabaletak eta Juan Gonzalezek aspaldian dute amets-desio batetik: bizi diren lekuan beran –Arabako Lasierra herrian–, artista, sortzaile eta pentsalarientzat espazio bat eraiki nahi dute, landan, bertakoa eta kanpokoarekin harremanetan egongo dena, artista, sortzaile eta pentsalariei lanerako eta ikerketarako espazio eta denbora-espazio egoki eta kalitatezko bat eskainiko diena. Nola uztartu amets-desio hau jasangarritasun ekonomikoarekin? Erantzun posible bat: eredu misto bat sortu, kreaio espazioa izango dena batetik, eta bestetik landa turismoa. Erantzuna eta lan-tresnak eskutan, erakuntza lanak abiarazten dituzte 2008ko otsailan, eta 2008ko abenduan lehenengo artistak hartzen ditu egoitzan Azalak: Beiruteko Zoukak kolektiboa.

Espazio bizefaloo da ordutik hona Azala, bi buru dituelako bai izaeran baita kudeaketan ere. Hots, bi espazio –kreaio espazioa eta ostatu turistikoa– eta kudeaketa pribatuko bi eredu ekonomiko uztartzen dituenen –laguntza publikoak lehenengorako eta turismotik datozen sarrerak bigarrengorako–.

Kreaio espazioaz hitz egingo dugu jarraian, izan ere, hor baitago geure ustetan Azalak Euskal Herriko eta kanpoko kultur mapari egiten dion ekarpen nagusia. Azalpen modura esan beharra dago, kreaio espazioaren epizentroak dantza, arte eszenikoak eta gorputzean oinarritutako praktikak badira ere, bere uhin hedakorrak naturaltasunez eta promiskuitatez zeharkatzen dituela beste diziplina artistikoak, hala nola arte performatiboak, gorputzaren arteak, arte biziak bezalako deiturak eta ezagutzaren beste arloak.

(2)

Proposamen bat. Goazen geure burua dizipline-tatik haratago kokatzera, eta pentsa dezagun modu “extradiziplinar”-agoan (1). Azala extradiziplinarra da, praktika artistikoak eta pentsamenduak bat egiten dutelako bertan egiten diren egoitza, lantegi, laborategi eta mintegietan. Ez bakarrik praktika artistikoa bera ikerketarako bide bat izan daitekeelako, baizik eta Azalatik antolatzen diren jardueretan antropologia, filosofia, zientzia politikoak edo soziologia sartzen direlako halaber.

Goazen bada diziplinen arteko zirrikietan eta loturetan mugitzera. Desioak dantzan jar ditzake egiturak, transformatzailea da desioa, kone-

xio gehiago bilatzen dituelako. Desioak inkon-
zientea ekoizten du. Adibide modura: krea-
zio lan baten aurrean gaudenean beti egoten da ne-
bulosa bat, gune zehaztu gabeko bat, bidea eze-
zaguna zaigu abiapuntuan gaudenean. Horrexe-
gatik da desioa faktore garrantzitsua prozesu ireki
batean: desioak hasierako eta bukaerako bi leku
horiek elkartzen dituelako. Ez dakizun horren in-
darra da desioa.

(3)

Esperientzia egin. “Gero eta informazio gehiago
dugu eta esperientzia gutxiago, zioen Benjami-
nek. Geure esperientziaren narrazioak bakarrik
ematen digu aukera hura ezagutzeko. Kontatze-
rakoan subjektiboa dena (esperientzia), amanko-
munean dugunaren bitartez (lengoaia) ematen
diogu elkarri. (...) Ikerketa infinitua egiten da,
(...) amaierarik ez duen prozesua da. Ez da inoiz
ixten (...)”, idatzi zuen José Luis Gallero poetak
(2) Renato Curciok eta Nicola Valentinok Azalan
gidatutako *Sozioanalisi narratiboa* mintegiaren os-
tean. Pedro G. Romero (3) artistak Lasierako eli-
zan dagoen San Vitoresen berri izaterakoan, san-
tutegian bilatzen jarraitzen du bere artxibo
mardula elikatzeke. Inazio Escuderok Azalako
jaian *La razón* abestu zuenean beti arrazoa izatea
zein aspergarria den gogorarazi zigun eta Miryam
Van Imschootek historia telefono dei bat izan
daitekeela (4).

Asko eta anitzak izan dira atepak ireki zituene-
tik egindako bide laburrean Azalak hartu dituen
artistak, pentsalariak, eragileak eta aktibistak. Lo-
tura moduko bat bilatzen hasten bagara, hari
amankomun bat, bi hitz agertzen dira: esperientzia
egin. Esperientzia egin dutela esan dezakegu, es-
perientzia egiteko aukera eman digula. Nola ulertu
esperientzia egin esaldia gaurko begiradatik? As-
paldi iragarri zuen Benjaminek esperientziaren
pobrezia, gerrarteko urteetan hain zuzen ere (5).
Gero eta informazio gehiago dugu, baina espe-
rientziak gure bizitzetatik kanpo gertatzen dira, eta

gu haiei begira egoten gara. Esperientzia egitea, or-
dea, bat dagoen lekutik haratago joatea izan dai-
teke, bat zegoen lekutik mugitzen joatea.

(4)

Afektuak sortu. Maite Arroita jauregik 2011ko irai-
lean Lasierako elizan eman zion itxiera *perfor-
manzeru* ibilbideari. Kontzertu heretiko batean
Azalan izandako egonaldian sortutako abestiak
eskaini zituen. Batean, tomatea botiltzeko Lasie-
rrako herriko emakume bati jasotako errezeta.
Bestean, aldaretik pasarazi zituen Santa Ageda,
San Sebastian eta San Vitores bera ere, *Martires*
kantuan (6). *Performanzeru* ibilbidea lainoen mo-
dukua izan zen: joan-etorrian ibili ginen.

Ikerketa eta kreaio prozesuetarako baldintza
egokiak sortzearekin batera, autonomia eta aska-
tasun espazio-denborak sortzea du helburu Aza-
lak, esperimentaziotik, hartu-eman, praktika eta
gogoeta kritikotik abiatuta, ezagutza produzitzea,
ekoiztea. Jakina da, azken esaldiak arte garaikideko
museo, zentro edo espazioen hiztegi amanko-
muna dira dagoeneko. Baina zer esan nahi dute hi-
tzok Azalatik? Ezagutza testuinguruak ekoizten
direla esaterakoan, afektuetaz hitz egiten ari gara
halaber. Kudeaketa aldetik Azalak espazio txiki ba-
ten desabantailak baditu ere –lantalde txiki eta
baliabide urriak, batzuk aipatzearen–, badu ho-
rrexegatik beste abantaila bat: jarduerak antola-
tzerakoan lor daitekeen gertutasuna, konplizita-
teak abiarazteko aukera ematen duena. Gorputza
da honek egin dezakeena, eta afektuak ere gorpu-
tzak duen ahalmena bezala uler ditzakegu, gorpu-
tzean ematen diren mugimenduak, geldirik
egonda ere gorputz batean ematen ahal diren mu-
gimenduak.

Afektuak ez dira pertsonalak edo norbana-
koak, eta ez dute emozioekin eta sentimenduekin
zerikusirik soilik, afektuak besteekin konektatzeko
aukera eta ahalmena izan daitezke. Erasatuak, era-
gin ahal izateko testuinguruak sortu, ekoiztu.

(5)

Mikorrizak. Lankidetzan aritu ahal izateko proiektuak prozesu sinbiotikoen modura ulertu. Adibidez, mikorrizak: “Mikorrizak landare baten sustriak eta onddoen hifak elkartzen direnean sortzen duten elkarrekin da. Elkarrekin horretan, bakoitzak behar duen zenbait substantzia trukatzeko dute. (...) Posible da onddo berak mikorrizak landare batekin baino gehiagorekin sortzea, eta mizelioaren bitartez konexioa piztea landare ezberdinen, zuhaitz ezberdinen, (...), baita sastraken artean ere”, idatzi zuen Isabel de Naveranek (7). Mikorrizak paseoak eta lainoak bezalakoak dira: joan-etorrian dabilta, epizentroaren uhin hedakorra noraino irits daitekeen jakin gabe. ■



AZALA ESPAZIOAK UTZIA

Hainbat lagun Azala espazioan lanean.

Erreferentziak:

- (1) Rolnik, Suely (2007) *La memoria del cuerpo contamina el museo*
<http://eipcp.net/transversal/0507/rolnik/es>
- (2) Gallero, José Luis (2011) “Sozioanalisi narratiboa laborategia. Kronika urgente bat”
http://www.azala.es/eu/testuak/orria_1/kreazio_espazioa_artxiboa_testuak.html
- (3) Pedro G. Romerok Azala kreazio espazioan gidatutako *Ambigüotasun, paradoxa eta toleskerien artean* mintegiaren harira.
- (4) Ikus Inazio Escudero eta Myriam Van Imschooten bideoak
http://www.azala.es/eu/bideoak/orria_1/kreazio_espazioa_artxiboa_bideoak.html
- (5) Benjamin, Walter (1982) “Experiencia y pobreza”, Madrid, Taurus
- (6) Ikus Maite Arroita Jauregiren *Martires* bideoa
http://www.azala.es/eu/bideoak/orria_1/kreazio_espazioa_artxiboa_bideoak.html
- (7) De Naverán, Isabel (2009) “Superficie profunda” *Gara* egunkariko *Mugalari* gehigarrian, Idoia Zabaletari egindako elkarrizketa.



Leire Lopez Ziluaga

Astrako kidea.

Astra, esperientzia parte-hartzailea

Gernika-Lumoko eraikin publiko batzuen sarrean kartel hau irakur daiteke: “Eraikuntza hau udal jabetzapekoa da eta, beraz, Gernika-Lumoko herritarren ondarea”. 2005eko abenduaren 24an, Ieup! gazte asanbladaren ekimenez, 60 bat gazte Astra arma-lantegi ohian sartu zirenean, Astra ez zen oraindik udal jabetzakoa. Orduan nahiko argi zegoen fabrika zaharra zegoen inguru osoa espekulaziorako erabili nahi zutela, eta herritarrek bere sentitzen zuten eraikin bat berreskuratzea eta espekulaziotik libratzea izan zen okupazioaren asmoetako bat –bere sentitzen zuten, besteak beste, bombardaketaren ostean zutik iraun zuen eraikinetako bat izan zelako eta gernikarren hainbat belaunaldik egin zutelako lan han–. Gainera, herriko elkarten betiko exigentzia bati irtenbidea eman nahi zitzaion –lokal publiko gehiago egitea–, turismoarekin lotutako kultura ez zena bigarren mailakoa baitzen udalarentzat. Oraindik ez zen udal jabetzakoa, baina 2006ko maiatzaren 10ean erosiko zuen udalak, egin zitzaion presioaren ondorioz, eta esango nuke, denborak aurrera egin ahala, udal eraikinetako kartel horrek dioena betetzea izan dela Astran parte hartu dugunon asmoetako bat. Nork bere erara uler dezake eraikin bat herritarren ondare izatea, jakina, baina guk herriaren ondare dena herritarrek kudeatu behar dutela uste genuen eta uste dugu.

Lehen okupazioak lehen desalojoa ekarri zuen, baina modu baketsuan kalera irten, eta berehala egin zen publiko hiru puntuz osatutako proposamena: Astra eraikin publikoa izatea eta bere ondarea jagotea, jarduera soziokulturaletarako espazioa izatea eta Gernika-Lumoko gazteek eta elkarten sareak modu parte-hartzailean erabaki ahal izatea Astraren etorkizuna. Otsailean bigarren sartu zirenerako, herritarrek, kultur elkarteek eta gizarte mugimenduak hainbat modutara erakutsia zieten babesak gazte asanbladako kideei, eta oraingo honetan ez zen desalojorik izan. Orduan hasi zen prestatzen Astraren bilakaeran ezinbesteko izango zena: zerokm parte-hartze prozesua. Asmoa ez zen gazteek okupatutakoa gazteek bakarrik kudeatzea. Astra eraikin enblematikoa zen herriarentzat, espazio falta ez zen soilik gazteen arazo, eta beraz, ahalik eta prozesu zabalena prestatu nahi izan zen, demokrazia zuzenaren bidez Astrak zer izan behar zuen erabakitzeko. Horretarako, demokrazia parte-hartzailean aditua den EHUko Parte Hartuz ikertaldearekin jarri ziren harremanetan, prozesuaren metodologia zehazteko. Batzar zabalak prestatu ziren, herritar guztiei zuzendutakoak; 100-125 pertsonak eta 25 bat elkarten parte hartu zuten Parte Hartuzek dinamizatutako prozesuan.

Urte eta erdi inguru iraun zuen prozesu horren ondorioz, Astra proiektua sortu zen. Hain zuzen, Astraren filosofiaren oinarriak adostu ziren (gizarte parte-hartzea sustatzea, autogestioa, kultur sorkuntza bultzatzea, kulturaz gozatzea, euskara sustatzea, irabazi asmorik gabekoa, belaunaldien artekoa, kulturartekoa, genero berdintasuna bermatu eta sustatzea, garapen jasangarria helburutzat duen espazioa, antimilitarista, oroimenerako espazioa). Horrez gainera, Astraren funtzionamendua eta finantziarioa erabaki ziren. Astran erabakiak modu parte-hartzailean hartuko zirela erabaki zen, Astra Koordinadoraren bidez. Herriko elkarte kulturelek eta gizarte mugimenduak osatzen dute koordinadora, eta elkarte eta taldeetan parte hartzen ez duten pertsonak ere biltzen ditu (bilerak irekiak dira).

2007ko ekainean udal-gobernua aldatu zen, eta EAk eta ezker abertzaleak osatutako taldea heldu zen Udalera. Udal berriak Astraren egituraren egoera ezagutzeko karga-probak egin zituen, eta emaitza oso txarra izan zen: eraikina hondatuta zegoela eta berreraiki behar zela zioen txostenak. Astran egiten genituen jarduerak etengo genituela adostu genuen Udalarekin, baina lekua modu ofizialean utzi gabe. Udalak Astra konpondu bitartean ordezkoko leku bat utziko zigula agindu zigun. Izan ere, aipamenik egin ez dudan arren, Astra okupatuta egon zen bitartean hainbat jarduera egin zen han (kontzertuak, hitzaldiak, film emanaldiak eta abar).

Koordinadorarentzat garrantzitsuena konpondu ostean eraikinean Astra proiektua martxan jarriko zela adostea zen, Astraren inguruko hitzarmen bat izenpetzea, eta horretarako, Astra batzordea jarri zen martxan, kultura arloko ezohiko batzorde irekia. Udalean zeuden alderdi politiko guztiak egon ziren gonbidatuta, eta denek parte hartu zuten neurriren batean. Uztailean hitzarmena izenpetu zen Koordinadorako kide baten eta alkatearen artean. Besteak beste, puntu hauek adostu ziren: Udalak Astra berreraikiko du, eta berreraiki ondoren Astra Koordinadoraren esku egongo da haren erabilera eta kudeaketa;

Astraren espazioen definizioa eta banaketa batkm parte-hartze prozesuaren bidez egingo da, parte-hartze zuzenaren bidez.

Horrenbestez, batkm parte-hartze prozesua ere egin zen, Parte Hartuzen laguntzarekin hau ere, Astraren espazioen beharrianak aztertzeko, irizpide arkitektonikoak zehazteko eta proiektu arkitektonikoaren diseinua egiteko. Kasu honetan ere, erabakiak modurik zabalenean hartzea izan zen prozesuaren asmoa. Bileren ostean zehaztu ziren irizpide filosofiko-ideologikoak (energetikoki autoaskia izatea, kontrol sozialik gabekoa izatea, herriko beste kultur baliabideekiko osagarritasuna, parekidea izatea eta abar) eta zer nolako espazioak nahi ziren (espazio zabal eta moldagarriak, espazio biribila bileretarako, gela txikiak lanerako eta abar).

Prozesua martxan zela, Guggenheim 2 museoaren inguruko eztabaida sortu zen. Eusko Jaurilaritzak eskualdearen garapenerako plana aurkeztu zuen, Foru Aldunditik bultzatzen zen planari kontrajarriz, eta Sormen Lantegien proiektuaren barruan, Astra berreraikitzeke diru-laguntza emateko prest zegoela jakin genuen. Une honetan, informazioa kanpotik heltzen hasi zitzaigun, lehen eskutik jaso beharrean, eta Koordinadora albo batera utzi dela sentitu dugu. Niri behintzat nabarmena egiten zait instituzioek egitura parte-hartzaileei dieten beldurra, dena kontrolpean sentitzeko beharra.

Horixe da gutxi gorabehera Astrak orain arte jarraitu duen prozesua. Astrak izan behar duena modu parte-hartzailean definitzea izan da prozesuaren zati garrantzitsuenetako bat, eta Astra berreraiki ondoren –laster hasiko dira lanak–, definitutakoak aplikatzen hastea da asmoa. Eraikinaren kudeaketa modu parte-hartzailean egitea, eta eraikina prest egotea nahi duen edozein pertsonak kultur sormenerako edo sortutakoa erakusteko aukera izan dezan. Astra ez da egitura zurruna, eta gero ere parte hartu nahi dutenek adosten dutena izango da Astra. ■



Senpereko kultura Larraldean bizi da

5.000 biztanle inguru ditu Senperetik, baina arlo kulturalen tamaina handiagoa duten herri asko baina bizkorrago dabil azken urteotan. Andoni Iturriozek zaharberitutako Larraldea etxeak badauka horrekin zerikusirik; erakunde publikoen sostengurik gabe, etxea erabiltzen dutenen arteko harremanak zainduz, zenbat gauza eta zein ongi egin daitezkeen erakusten du egunero-egunero Larraldeak.

■ Egilea: Gorka Bereziartua

– Eta ez pentsa e, Larraldea mantentzeko, esango dizut zenbat diru den gutxi gorabehera... bost mila euro.

– Urtean?

– Urtean, urtean... Bost mila euro besterik ez.

Zenbait proiektuk gurean izaten dituzten aurrekontu erraldoiak ikusirik, Andoni Iturriozekin hitz egitea oinak lurrean jartzea bezalakoa da; berehala erakusten dizu, esplikazio simple bezain zehatzez, kulturagintza bizi-bizi mantentzen duen espazio batek ez duela zertan inbertsio ikaragarriarik eskatzen, jarduteko moduan dagoela sekretua. 2000. urtean erosi zuen Senpereko Larraldea, XVI. mendeko etxea, eta arreta handiz ekin zien zaharberitze lanei, “baina lehen bezala uzteko, ez hemen egiten duten bezala, kanpoko itxura atxiki eta barnekoa dena hautsi apartamentuak egiteko. Nahi nuen erakutsi etxea nola izan zen egina XVI. eta XVII. mendeetan; uste dut lortu dudala hori”.

Obra horretan gastatu du Iturriozek Larraldean inbertitu duen diru kopururik handiena; ikusteko modukoa geratu da etxea, bere xumean gustu handiz apaindua, goxotasuna arnasten da barruan. Eta behin horretara jarrita, zergatik ez

ateak ireki? Etxeak erabileraren bat eskatzen baitzuen: “Ez nekien zuzen zer egin, lehenik pentsatu nuen museo gisa jartzea eta hasi nintzen baserriko tresnak biltzen: orgak, gurdiak, goldeak... Baina ikusi nituen museo txiki batzuk Bizkaian eta Baztan aldean, eta iruditu zitzaidan museoa geldia zela, hila. Orduan, ideia aldatu nuen”. Joana Mendiburu ezagutzen zuen, bertso munduan buru-belarri sartuta zebilen senpertarra denbora hartan eta esan zion Iparraldeko Bertsularien Lagunak elkarteak ez zeukala egoitzarik, ea tokirik uztea ba ote zuen. Esan eta egin, 2005. urtetik Larraldean bizi da bertsolarien elkarte, bertan ditu bulegoa eta bilera gelak. “Odei Barroso, Xumai Murua eta horiek etortzen dira errepikak egitera, bazkariak antolatzen dituzte beraien artean...”.

Mugimendua ikusirik, lekuren baten premian zebiltzan talde gehiago ere hurbiltzen hasi zen: Euskal Herrian Euskaraz, Integrazio Batzordea eta bi dantza talde (Senpereko Zirikolatz eta salsa dantza talde bat), besteak beste. Elkartzeko lekua edukitzeak interes berriak garatzeko bidea ere erraztu zuen eta hortik sortu zen Lapurdi 1609 elkarte. “Ohartu ginen Senperen sorginak-eta aipatzen zirela, baina gauza horien inguruan ez zegoen informaziorik. Orduan, antolatu dugu elkarte bat ikerketak eginarazteko horri buruz. Mintzaldiak antolatu ditugu, gai horrekin lotu-

tako arte erakusketak, antzerki bat ere bai, Iduzkilore... eta horren inguruan ere sortu da talde bat”.

Udaberrian erakusketak antolatzen ditu: Juan Gorriti, Nestor Basterretxea, Mariemi Otaola... “Egia esan harrিতuta geratu naiz” dio Iturriozek “nola etortzen den jendea erakusketetara; ez nuen pentsatzen etorriko zirenik, baina etortzen dira. Gune egokia iruditzen zait erakusketak egiteko, artistak kontent geratzen dira eta ni ere bai”.

SOSETAN BAINO, HARREMANETAN DAGO SEKRETUA

Behin baino gehiagotan errepikatu du Iturriozek ideia bera: “Ez dut deus hartzen, ez dut egiten sosa irabazteko; gastuak ere nire sakelatik ordaintzen ditut denak”. Kulturgintza sustatzen duen mezenasa da Larraldearen nagusia eta erakunde publikoek betetzen ez duten zeregina bere gain hartu du. “Herriko Etxeak badu helburua gune bat egiteko, antzoki bat, eta pentsatzen ari dira toki uztea elkarteentzat. Baina Larraldeak egiten du orain lan hori; eta jendea arrunt ongi egiten ari da, arte maila politarekin, antzerki politak, aurkezpenak...”. Pozik dago etxearen dinamikarekin, nahiz eta krisia alde guztietan nabaritzen den. Aurrera begira, Larraldea erabiltzen duten taldeei gastu arruntak ordaintzeko diru apur bat eskatzea ez du baztertzen. “Bertso elkarteak urtero zerbait ordaintzen du, baina bestela, argi-indarra, gasa, ura, zergak... neronek ordaintzen ditut. Elkarte txikiak dira hemen dabilzanak eta gastu handirik ere ez dute; orain arte bildu dute sosa aski beren lana egiteko”. Eta ez du subentziorik eskatu; ez du pentsatzen galdetzea ere. “Herriko Etxeko politika da pizar bat ematea jende anitz eta hori ez da politika egokia niretzat. Elkarte bati ematen badizkiozu 100 euro, hartuko ditu; baina horrekin zer egin behar du?”.

Hainbeste talde ibilita, antolatzeko nola moldatzen diren galdetu diogu Iturrioz bukatzeko, ea ba ote dagoen batzorderik edo talde guztiak or-



HTTP://LARRALDEA-AMOTZ.COM/

Goiko argazkian Senpereko larraldearen aurrealdea; XVI. mendeko eraikina jatorrizko arkitektura errespetatuz zaharberitu zuen, lerroon ondoko argazkian ageri den Andoni Iturriozek.



ANDONI ITURRIOZEK UTZIA

dezkaten dituen mahairik, koordinazio lanetarako. “Ez, ni naiz” erantzun du. “Aspaldian pentsatzen dut sobera lege egiten dugula eta gero behar duzu abokatu bat jakiteko zer lege dugun. Nik gauzak simple-simple egiten ditut; egia da horrela egiteko behar direla gauzak landu. Nik egutegi bat eman dut eta bakoitzari galdetzen diet toki hartzea aitzinetik; orain arte aski ongi funtzionatu du, arazo txiki batzuk izan ditugu, batzuek ez dutela lekua hain garbi uzten... horrelako gauzak. Eta orduan, nik egiten dudana da, neronek jendea buruz-buru hartu eta ematen dizkiet aholku batzuk. Jendeak ikusten du konfiantza egiten dutela eta ez dute hori galdu nahi. Pentsatzen dut, gainera, hori euskal kulturaren sartuta zegoela eta orain ere hala jarraitzen dugu, aski kontent naiz”. Kultur kudeaketa manual bikaina da, zalantzarik gabe, Andoni Iturriozen esaldi horrek biltzen duena. ■





Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea